

FUNTSEZKO ASOZIAZIOAK

Enpresa osatuko dugun bazkide bakoitzak, ahalmen desberdinak ditugu, batzuk kontabilitatekoa, besteek harremanak mantentzea eta beste batzuek lokalaren mantenua kontrolatuko dugu, baina hala eta guztiz ere, funtsezko asoziazio batzuen beharra daukagu zenbait ekintza ahalbidetzeko.

Gure lokalaren barruan egongo den taberna zerbitzurako, beharrezkoa izango da produktuez hornituko gaituen enpresa batekin erlazioak egitea, horrela, kostuak murriztu eta beharrezko baliabideak lortuko baititugu.

Horrez gain, gure hasierako ideia web gune bat egitea da eta horretarako guk jakintza nahikoa ez ditugunez, webguneak egiten dakien enpresa batekin jarriko ginateke kontaktuan.

Momentuz, hauek izango lirateke gure funtsezko asoziazioak, baliabideak eskuratzeko eta negozio-eredua optimizatzeko. Baina gerora, kapitala handituz joango balitz, hobekuntzak egitearekin batera erlazio berriak egingo genituzke, adibidez, sare sozialetan gure enpresa zabaltzeko pertsonaia ezagunekin kontaktatuko genuke.